

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2026)

Euskarazko hizkerari eta adierazkortasunari buruzko ikerketa-lanen egitasmoak saritzeko

Euskaltzaindiak, Mintzola proiektuaren bidez, euskaraz egiten den ahozko jardunari buruzko hiru ikerketa-lan saritzeko deialdia argitaratu zuen martxoan. Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktorego-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta deialdi honen helburuak dira: batetik, bide horretan laguntzea; bestetik, berriz, unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, euskaraz egiten den ahozko jarduna ikergai gisa sustatzea, ondorengo zazpi eremuak oinarrian direla:

1. Eguneroko hizkera informalaren ezaugarriak eta beronen egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
2. Euskalkiak eta estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
3. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
4. Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
5. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletik sustatzeko bideak eta formulak.
6. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun baliabideak lantzeko bestelako bideak.
7. Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Bi lan aurkeztu dira deialdi honetan, eta proposamenak irakurri eta aztertu ondoren, zehaztutako ebaluazio-irizpideak aintzat hartuta, epaimahaiak erabaki du ondorengo lana saritzea:

Unibertsitateko irakasleen ahozko jardunaren inplikazio pedagogikoak euskararen erabileran: hizkera formala, ahozkotasun hurbila eta hizkuntzen arteko alternantzia Euskal Herriko Unibertsitatean.

Egileak: Odei Guirado Irasuegi, Alaitz Santos, Peio Manterola eta Karin Van der Worp.